

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BARRUNDIAKO UDALA

#### 2020ko landa, hiri eta ezaugarri bereziko Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga kobratzea

Nik, Igor Medina Isasa jauna, Barrundiako Udaleko Alkatea,

Jakinarazten dut: Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga eta ezaugarri bereziko Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ondoko epeetan ordaindu ahal izango dira:

I. Ordaintzeko epea:

1. Lehenengo epea:

A) Borondatezko epea: 2020ko uztailaren 20tik irailaren 20ra arte.

B) Betearazte aldia: 2020ko irailaren 21etik aurrera betearazpen epeari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaruak, premiamendu urrituzkoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek adierazitako epeetan.

2. Bigarren epea:

A) Borondatezko epea: 2020ko urriaren 15etik abenduaren 15era arte.

B) Betearazte aldia: 2020ko abenduaren 16tik aurrera betearazpen epeari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaruak, premiamendu urrituzkoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua:

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontuan helbideratuta badute. Udala arduratuko da ordainketa bideratzeaz.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa banku bidez helbideratuta ez daukatenean udalak Kutxabank eta Laboral Kutxan dituen edozein kontutan dirua sartuta egingo dute ordainketa.

III. Gomendioak:

Banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Barrundiako Udalarari jakinaraziko zaio, hurrengo batean jakinarazpenak egin ahal izateko.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Ozaetan, 2020ko uztailaren 2an

*Alkatea*

*IGOR MEDINA ISASA*